

**BERDINTASUN BATZORDE IREKIA**  
**COMISIÓN ABIERTA DE IGUALDAD**

**Data:** 2012ko apirilaren 26a.

**Bertaratuak:** Hita Sagaseta, Aitziber Zapiain (Gaztetxea), Ainara Gaztelu, Elurre Iriarte eta Garbiñe Elizegi (Alkatea).

**Fecha:** 26 de abril de 2012.

**Asistentes:** Hita Sagaseta, Aitziber Zapiain (Gaztetxe), Ainara Gaztelu, Elurre Iriarte y Garbiñe Elizegi (Alcaldesa).

Bilerari hasiera eman ondoren aurreko bileraren laburpena aztertzen da. Hitak dio berak ez duela Eguzki Lore bezala agertu nahi, batzordean ez dutelako aipatu partehartzea edota, hori erabakitzen bada, nor izanen den Eguzki Loreren ordezkaria batzordean. Batzordea jakinaren gainean gelditzen da.

*Una vez iniciada la reunión se procede a analizar el acta de la reunión anterior. Hita comenta que prefiere no aparecer como representante de Eguzki Lore porque no han mencionado en la comisión nada sobre su participación o sobre quién debería ser, si así se decidiera, el/la representante de Eguzki Lore en la comisión. La comisión se da por enterada.*

Teknikariaren egoerari dagokionez, ez dago aldaketarik eta beraz, gai hau berriak jasotzen direnean aztertuko dugu.

*No existen cambios en lo que se refiere al/a técnico/a, cuando haya novedades serán analizadas.*

Mahai inguruari dagokionez, hiru lagun ekartzea proposatzen da: Oier Araolaza (antropologoa), Araitz Rodriguez (antropologoa- Farapi elkarte) eta Bilgune Feministako kide bat. Titulua zehaztu gabe gelditzen da. Maiatzaren 23an izanen da mahai-ingurua Arizkunenean arratsaldeko 19:30ean. Kartela egiteko Xabi Ballarenari errango zaio. Ordainketarako proposamena Gobernu Batzordetik pasatuko da.

*En cuanto a la mesa redonda se propone traer a tres personas: Oier Araolaza (antropologo), Araitz Rodriguez (antropologa, asoc. Farapi) y a un/a miembro de Bilgune Feminista. El título queda por concretar. La mesa redonda se celebrará el 23 de mayo a las 19:30 en Arizkunenea. Se le pedirá a Xabi Ballarena que haga el cartel. La propuesta de pago se llevará a la Comisión de Gobierno.*

Gizarte Zerbitzuek proposatutako ikastaroen inguruan eztabaidatu zen. Ikastaroak “emakumeentzat” eta “gizonentzat” bezala aurkeztearen aurrean hausnarketa egin behar dela adostu zen. Hurrengo bilerara Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia gonbidatzea proposatzen da, gauzak argitzeko.

*Se debatió en torno a la propuesta de cursos presentada por los Servicios Sociales. Se acordó que se debe hacer una reflexión en torno a la presentación de cursos “para mujeres” o “para hombres”. Se propone invitar a la próxima reunión a la concejala de Servicios Sociales, para aclarar el asunto.*

Azkenaldian Baztanen emakumeei egindako jazarpenak izan direla eta zein neurri hartu den galdetu zen. Udala Foruzaingoarekin eta afektatu batzuekin harremanetan jarri zela azaldu zen. Foruzaingoarekin bilera bat eskatuko da eta egoeraren jarraipen bat egingen da.

*Se planteó la cuestión de qué medidas se han tomado en torno a los últimas agresiones contra mujeres que se han registrado en Baztan. El ayuntamiento se puso en contacto con la policía foral y algunos/as afectados/as. Se ha solicitado una reunión con la policía foral y se realizará un seguimiento de la situación.*